



Akelarre. Nestor Barrenetxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa


bertin

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Leire Zorrozua

“Ez dut izan arazorik emakumea izateagatik”


Intsumisioak
ba du 10 urte



Sama-Siku:
20. Urtemuga



Santutxuko
Xake Taldea




1999ko azaroa 16. zkia. 125 pzt.

Iñigo Calvo ✂ Txepetx Irratia ✂ Mendi Ibibideak...

betikoak

GURYBIOLANDA



Ganguren mendian, Sto. Domingotik Viverora doan errepedeko ezker aldean, 6-7 km. bitartean, inskripzio batzuz gagoen mugarri landua.



Mugarri hau, Zamudio, Galdakao, Etxebarri eta Bilboko herriek muga egiten daberen lekuan dago, eta izen honek prisma erako harriaren alde bakoitzean dagoz landuta.

1924 urtearen ostean inskripzioak manipulatuta egin dabezala uste dogu, arrazoi argi bategatik: orduarte ez ebalako Bilbogaz muga egiten, Begoñagaz baino. Behar bada mugarri osoa egongo da aldatuta.

Gury-bio-landa inskripzioa

Lau herrien izenen inskripzioaz gain beheko aldean beste hau be bqdago: GURY-BIO-LANDA, hau da, leku honen izena, matseritarrok gure arbasoetatik ezagutu dogun moduan zer esan gura dauan pentsatu barik.

Teofilo Guiardek "Compendio de la Historia de Bilbao"n, 1270 urteko dokumentuetan oinarrituz, ganboatar eta oinaztarren buruen arteko liskarrak, Ganguren muinoko Gudubiko landan

izeneko parajeen egiten zizala aipatzen dau.

Guiarden aipu honeeri jaramon eginda ez litzateke harrigarri izango, mugarria dagoan leku berbera izatea, eta jatorrizko izena "Gudu biko landa" izatea.

López de Salazarrek be, "Bienandanzas e fortunas"en, aipatzen dau bataila garratza izan zala Zamudiotar (Malpika Torrekoak) eta Legizamontarren (Etxebarri eta Bolueta) artean. Eta baleiteke bataila hau, leku berean izatea, familia honek oinetxeak, Gangurengo alde bakoitzean eukezan eta.

Ondorio moduan, nire eritxia, beste argitasunik ezean, Gury-bio-landa inskripzioa, jatorrizko "Gudu biko landa" moduan interpretatu daitekeela.

Antón Larrazabal Etxebarria

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa: 94 473 54 48
e-posta:
berton@mail.com

ZUZENDARIA:
Aitziber Laskibar

KORDINATZAILEA:
Unai Cuevas

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez, Joana Martínez, Joana Etxebarria, Irune Berro, Iratxe Ruiz, Leire Altamira, Erdoitza Martínez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi, Joseba Barrenetxea, Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Igor Zorrozueta, Iñaki

Aurrekoetxea, Joseba Zelaia.

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea, Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000

A U R K I B I D E A



▶ Betikoak	2
▶ Iritzia	4
▶ Sama-Siku Fanfarrea	5
▶ Hileko argazkia	7
▶ Begoña eta euskerea	8
▶ Berton dugu! Begoñako Erromeria	10
▶ Bakarka, Leire Zorrozueta	12
▶ Inkesta, Objezio fiskala	15
▶ Mahatsberriak	16

▶ Erreportaia, Intsumisioa	20
▶ Behetik gora, Olgetan	23
▶ Behetik gora, Txepetxa Irratia	24
▶ Bota ba, Xake	25
▶ Bidean gora, Mendi Ibilbideak	29
▶ Bideak, Iñigo Calvo	27
▶ Badatoz, Agenda eta horoskopoa	30
▶ Begizorrotza, Komikia	28

Negu demoniñoa etor jaku derrepentean, San Martineko udaxue? Letxes!! Mortxilek nebera barik, bentanan konjelateko besteko hotza sartu de, ta hotzagaz edurre, abazuza ta inetasie bere bai. Dediooo! 2.000 orduko tragaute ez bagaoz danok... Hau ixengo ete da elefektodosmil famosoa? Baie, gauze handidxe da dana dala, ikustie zelán jendie, hotzan hotzaz mamelotute lotu beharrekoan, biarrien hasten dan lehen baino gogo geidxagogaz. Ezpabere, aittu portadan urtetan dan neskieri. Leire Zorrozueta, nik telebisiñoan ikusten dot, ta zelango bixitasune, ta zelango garboa dekon! Ta nik pentsetan

neuen holangoa bakarrik zala gure denborako jentie... Zeraaaa! Oingo gaztie bere ederto datoz.


Ze horreik milire joan gure ez daurienak bere, insumisoak-edo. jodeeeeee, hori da hori balorie! Gure denboran, milire ez zoazela esan bere egitea! Bueeno! Hireak in yok!

Dana dala, neu bere sasoi-sasoi nago gero! Ez daid-xela inok pentseu akabaute gaozela, e! Pasaten dan bakarra da hotza hain derrepentean sartu dala ze apurtxu bet hotzittute nago, baie ontxe noa porrusaldatu bet jaten, ta parauko naz neu bere datorren mendera allegateko moduen!

Firmaute: Mahotziute



EZETZ LORTU!



Ezetz? Zer baina? Ba..., 25 orduz euskaraz bizitzea. Horixe da Santutxuko Euskal Herrian Euskaraz-eko lagunek datorren abenduaren 18rako Mahatserriko euskaldun eta euskaltzaleoi bota diguten ordagoa.

Eta zer dela-eta 25 ordu? Erraza erantzuna: jakiteko bertoko euskaldunok 25 orduz, hau da, egunbetea eta ordubetea, euskaraz bizi ahal garen ala ez.

Ordago honetatik galtzaile edo irabazle irten daiteke. Bietara hainbat gauza hausnartu beharko dugu: irabazle irtenez gero, 25 ordu horiek, 25.000 izan daitezen zer egin behar dugun, eta galtzaile suertatuz gero, gura badugu, zergatik ezin dugun, eta horretarako zer egin behar dugun planteatu.

Edozelan ere, EHEkoek guztioi eskaini digute gogoetarako parada ona. Eta parada hau aprobetxatu behar dugu, momentu-txo baten gelditu, eta zer egin dugun, zer egiten dugun eta zer/zelan egin behar dugun hausnartzeko. Ondo aprobetxatu, eta ez utzi pasatzen beste hainbatetan legez, zerbait egin guran, edozer egin eta azkenean abioko puntura bueltatzeko.

Euskararen berreskurapenean eta normalizazioan une goxoan bizi garela pentsa daiteke erraz, eta seguruenik beste batzuetan baino goxoago gabiltza oraingo honetan, baina, unea goxoa izanik ere, hori baino areago, kritikoa da, eta ez kritikoa larritasunagatik, momentuaren garrantziagatik baino. Hau da, zirt edo zart egiteko momentuan gara, pausu asko egin ditugu aurrera azkenotan, urte asko ez direla pentsatu ere ezinekoak, baina zer egingo handia da oraindino, egingo handiagoa, eta une honetan martxa moteltzen badugu, gureak egin du! Aurrera barik atzerantz egingo dugu. Eta oraingo sasoi kritikoa bada, honexegatik da: oraindino ez gara heldu prozesuari buelta eman ezin zaion puntura. Eta prozesuari eusten ez badiogu, dena galduko dugu uste baino errazago.

Garrantzi handikoa da beraz hemendik aurrerako estrategia zehaztea, bat egin, non garen eta nora goazen ikusteko, eta honetarako lehenengo hitzordua datorren abenduaren 18an, 25 ordu dauzkagu horretarako.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Bizkaiko Foru Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerria, 48004

Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito): _____ / _____ / _____

Sinadura


bertón

SAMASIKU FANFARREA



Guztiok ikusi ditugu nozbait Sama-Siku taldekoak auzoko kaleetan zehar jotzen, Santutxuko Jaietan edota Ihauterietan giroa alaituz. Azkar ohitu gara euren musikaren erritmora dantzan egitera, eta ez da gutxiagorako ere: hilabete honetan ospatu berri dute euren 20. urtemuga.

Joana Martínez Ortueta



Santutxuko poteo gunean

E I T U !

A T U G U R E A





Izan ere, 1979.ean jaio zen fanfarre hau, nahiz eta aurreko urtetik konparsa modura aurkeztu. Urte hartako Bilboko Jaien ediziorako Sama-Sikuk, beste konparsa guztiek bezala, fanfarre bat ekarri zuen berarekin, Pasaia San Pedroko Tirri-tarra, hain zuzen ere. Hortik irten zen euren fanfarrea sortzeko ideia, eta argi dago arrakasta izan zuela: jadanik bi hamarkada daramatzate Sama-Sikukoek jai eta saltsa guztiei musika jartzen.

Batzuk joan, besteak etorri, momentu honetan inor gutxi gelditzen da hasierako garai haietakoa baina, hala ere, hogeita hamar berrogei bat gazte daude Sama-Sikun sartuta. Ia urtero heltzen da jende berria taldean parte hartzeko prest, ateak lan egiteko gogoak dituen edozeinentzat zabalik baitaude; printzipioz, solfeoa jakitea baino ez dute eskatzen, musika tresna eta irakaslea fanfarreak berak jartzen ditu eta.

Baina Sama-Sikuren ospea ez da Santutxu eta bere inguruetara mugatzen, inondik ere ez. Talde hau martxan jarri zenetik hamaika lekutan izan da bere musikarekin. Bizkaia eta Donostia aldetik sarri deitzen badituzte ere, askotan izan dira

estatuko beste hainbat herritan, Galizian, Huescan eta Kataluniako Sant Sadurni da Noia-n, besteak beste. Eta hau gutxi balitz, mugaz bestalde ere sarri bidaiatu dute. Europako hainbat herrialdeetan fanfarreen musika ezagutaraztera emanez. Horrela, Frantzia, Belgika, Holanda, Italia eta Greziara joan dira kontzertuak eman zein lehiaketetan parte hartzera. Eta lan honek guztiak bere fruitua eman du, noski, Sama-Sikuren palmares luzeak erakusten duen moduan. Aurten adibidez, urrunago joan gabe, Rochec-huar-eko Zilarrezko Lehoia irabazi dute, bigarren saria, alegia.

Hala ere, bidea ez da beti erraza izaten, eta horrenbesteko tradizioa duen talde honek leku arazoak ditu momentu honetan. Sama-Sikuk Santutxun duen lokalak batzarretarako balio du, baina txikiegia da bertan entsaiatzeko. Beraz, gelditzen zaien irtenbide bakarra eskolatan euren instalazioak erabiltzeko baimena lortzea da: momentu honetan asteburu Mina del Morron entsaiatzen dute, baina hori ez da nahikoa eta astean zehar ere praktikatzen ahal izateko beste leku baten bila dabilta. Ea zortea duten eta orainarteko sariei beste asko gehitzen dizkieten.

SARIAK:

- 1978 Bilboko Jaietako Lehen Saria.
- 1979 Bilboko Jaietako Lehen Saria.
- 1980 Condom D'Armagnac-eko Banda eta Elkarteen Nazionarteko Jaialdian Piztura Saria.
- 1981 Condom D'Armagnac-eko Banda eta Elkarteen Nazionarteko Jaialdian Piztura Saria.
- 1982 Condom D'Armagnac-eko Banda eta Elkarteen Nazionarteko Jaialdian Zilarrezko Palma. Donostiako Fanfarreen Nazionarteko Jaialdian Umore Saria.
- 1983 Condom D'Armagnac-eko Banda eta Elkarteen Nazionarteko Jaialdian Urrezko Palma.
- 1984 Mont de Marsan hiriko Sari Berezia.
- 1985 Mont de Marsan hiriko Sari Berezia.
- 1986 Condom D'Armagnac-eko Banda eta Elkarteen Nazionarteko Jaialdian Urrezko Saria.
- 1988 Condom D'Armagnac-eko Banda eta Elkarteen Nazionarteko Jaialdian Zilarrezko Palma. Dalhem-eko (Belgika) Banden Nazionarteko Jaialdian Urrezko Gaztelua.
- 1989 Condom D'Armagnac-eko Banda eta Elkarteen Nazionarteko Jaialdian Brontzezko Palma. Dalhem-eko (Belgika) Banden Nazionarteko Jaialdian Brontzezko Gaztelua.
- 1991 Condom D'Armagnac-eko Banda eta Elkarteen Nazionarteko Jaialdian Zilarrezko Palma.
- 1992 Condom D'Armagnac-eko Banda eta Elkarteen Nazionarteko Jaialdian Zilarrezko Palma.
- 1993 Bilboko Ihauterietako Mozorroen Bigarren Saria.
- 1994 Bilboko Ihauterietako Mozorroen Lehenengo Saria. Bilboko Ihauterietako Musikaltasunaren Lehenengo Saria. Dalhem-eko (Belgika) Banden Nazionarteko Jaialdian Brontzezko Gaztelua.
- 1995 Dalhem-eko (Belgika) Banden Nazionarteko Jaialdian Brontzezko Gaztelua. Bilboko Ihauterietako Musikaltasunaren Bigarren Saria.
- 1996 Bilboko Ihauterietako Musikaltasunaren Lehenengo Saria.

*Udazkez arratsaldetan
iluntzen duenean
hostoak erortzen dira
negar tanten munduari...*

GILLERMO ETXEBARRIA ARTXANDAKO PANDERETERUE

Artxandako pandereterue goitizenez ezetuten bada be, pastore eta San Roke basilizako sakristaue be izen da eta bere arreba Marigaz bizi da gaur egun Artxandan, San Roke baserrian.

"..jantzan iten euren eskutik agarraute buelta batzuk, eta gero hasten ziren erromerie."
(Begoñako aureskue)

"Eskubitian dakar argie, bestean ukinketarie, altzoa ere gora dakar ta ande dozena arrautzie"
(Sta. Agedako kanta)

I.Gaminde, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

Begoña eta Euskereea

Berton.- Baserriko ganaduakaz zer egiten zenuen?

Mari-Gillermo.- Gure aitek eukiten eun ardiek eta artxoak eta beiek bebai. Artxoak eroten genduzen astoaz zesti-letan, Ciudad Jardineko mataderora. Esnea be saldu-ten zen ondo, astoaz jotzen gintzen Bilbora oinez, eta han eukiten gendun aiten lengusin bet Montañon alboan etsaldea, han gordeten gendun astoa, ta gero Bilbon saldu esnea, amagaz joaten nintzen.

Berton.- Zuk ezetu dozu kordako aureskue Begoñako plazan?

Mari.- Bai eleiza aurrean Andra Mari egunean, gu sarritan egon gara.

Berton.- Eta neskek ataraten?

Mari.- Eztabe iten oin. Neskek atarateurien, neska bat eta mutil bet, neska bat eta mutil bet eta gero iminten eurien txapela neskeari eta (mutillek) jantzan iten eutsen aureskue.

Gero koiuten euren kordela, mutil bet eta neska bat atara jantzan eta paraten ziren mutil bi jantzan aureskue iten neskeari eta gero jantzan iten euren eskutik agarraute buelta batzuk, eta gero hasten ziren erromerie.

Berton.- Makine bat urte izango da hori?

Mari.- Bai, gerrea baino lenago, gero etorri zen gerrea.

Berton.- Ezetu dozue txikerretan baserririk jotzen urte



Guillermo Etxebarria San Roke baserrian

barriten?

Gillermo.- Bai, hau "Urte barri, txarri belarri, dekonak eztekonari, nik eztekot eta niri ezpabere ariñ eta kriskiti kausti".

Kanporamartxo etxerik etxe bai neska mutillek batu arrautzea, ta artourune apur bet eta taloa egin kanpoan. Egin sue... edonon ermite atzeko kantera nausien, ta gero meriendea ein Sue egin eta arrautze frigidu kanpomartxo, karnabalatan edo

Berton.- Santa Ageda hemen kanteten zan?

Gillermo.- Lau edo bost kanzinoa dekete Sta. Ageda kantak.

Berton.- ¿Eta zeintzuk dakizuz?

Gillermo.- "Bedeinkatua eta alabdua, sakramentu santua, bedeinkatua izan daiteela etxe honetako jentia. Oingo lotsaska bildurraz gatoz jauna berorren aurrea, pobre ta umilde dabilleanantzat badozu borondatia." Gero koroa, "pobre ta umilde.."

Gero koroa, "pobre ta umilde.."
makilek jotzen ta kordiona ta txilinek
(Etxeko usabari)

"Etxe honetako nagusi jauna urregorritz dau bizerra urregorritz dau bizerra eta diamantezko espalda." Gero koroa, urregorritz...

(Andreari)

"Etxe honetako patro andria, andra ona ta noblia, sekule bere ezteu botaten limosna barik pobria" , "Eskubitian



Gillermo, panderue jotzen. Txilibrin, Andrakas eta Manologaz be jotzen izen dau.

dakar argie, bestean ukinketarie, altzoa ere gora dakar ta ande dozena arrautzie" (koroa..)

(Mutilei)

"Etxe honetako saldun gaztia zibilien ta granadan naparra herrien gerra da, etxe honetako saldun gaztia bakiak eiten ara da." (koroa)

(Neskei)

"Lindera mia etxoizu auze entzutearri zagoz zu zeure auzoko mutil gaztiak zeuri kantetan deukoizuz"

Beste estrofa batzuk be badekoz.

"Oles, oles atetan nor dabil sasoi honetan, mutil soroko alkartute Santi Ageda kantetan."

Berton.- Zelan ensaiaten zenduen?

Mari.- Aite difuntuek kantetan eun eta Fernando Zubiaur, neba bi handiangoak eta aiek kantaten eurien, beste nebeak jotzen euen panderetea, gerrean hil euskuna, 25 urtekoa.

Berton.- Eta emoten ezpaberen kanteten zen?

Gillermo.- Danak emoten euren limosea gitxi edo asko danak. Eta hiltzen zanian etxeatan, kanteu bearrean errezeu iten zan. "Trau, trau, kanteu ala errezeu?"

Berton.- ¿San Juanetan zeozer egiten zenduen?

Gillermo.- San Juanadea, oin be iten dogu, eta salteu bebai. "Nire sorroan sorginik ez, badagoz ezpadagoz ere emen erre geinkez"

"San Juan dela portalean, laronbata arratsaldian hamalau



Mari Etxebarria, Begoña, oindiño Begoña zanean jaio zen.

atso tronpeta jotzen motroilo baten ganian, urra, urra, urra San Juan eta dantzan egingo du iparraxetan uu,uu,uu san juanera goaz gu."

Berton.- ¿Eta egurre ekarri eta imini ezan egiten?

Mari-Gillermo.- Bai, San Juan aretxa iminten zan, berakatzak, artaburuek eta lorak eta kerisak eta gero solora eroan eta erramatxu bat imini kurtzea

Etxeko atean iminten gendun erramak berakatzakaz, arkuia iten eta neskari bentanan iminten eutsien lorak eta kerixak mutil lagunek, niri imin dostie gaztetan.

Ospatu da jada Begoñako Erromeria



Joana Etxebarria ✍

Orain dela hiru urtetik, urriaren 11n, Begoñako Anaitasunak erromeria bat antolatzen du. Hau, Ama Birjinaren omenez egiten da eta urtero-urtero geroz eta jende gehiago biltzen da eleizaren inguruan.

Aurten giro paregabea zegoen, gainera ez zuen euririk egin eta egun argi eta alaiak jendea bertara hurbiltzera animatu zuen.

Gerturatu zirenak zihur erroskila poltsatxo bat edo beste erosi zutela; izan ere izugarria zen erroskila saltzaileen kopurua. Bestalde, berehala antzeman zitezkeen talo eta txorizoaren usain gozoa, horregatik produktu hauek saltzen zituzten txosnak gainezka zeuden. Jende guztia handik hona zebilen Begoñako Anaitasunak saltzen zituen paineluak aldean

zituztelarik. Hauek, paineluez gain zilarrezko medaloiak, hautsontziak, pinak e.a saltzen zituzten. Erromeria egun ona izaten da estampa, erroskila eta horrelako gauzak saltzeko baina kontu handia eduki behar da karteristentzat ere egun paregabea izan daitekeelako.

UMEAK ERE POZ-POZIK

Aurten umeek ere euren txokoa izan dute eta ez dute aspertzeko aitzakiarik eduki. Haurrek gargantuarekin jolasean eta «Hiri Puzgarrian» saltoka aritu ziren neke-neke egin arte.

Lehenago aipatu bezala, jende ugari zegoen, inguruko tabernak ere gainezka zeuden. Dena den, nahiz eta gazteak erakartzeko ahaleginak egin hauen falta nabaritu zen eta beti bezala heldu eta adinduen presentzia nagusitu zen.

Erromeria hau geroz eta garrantzitsuagoa da eta ondorioz telebista kate desberdinetako erreportariak

ikus zitezkeen bertan mikrofonoa eskuan zutela jendeari galderak eginez.

Egitarauari begira

Egitarauaren barnean ekintza anitz antolatu ziren egun guztian zehar.



Lehenik eta behin, goizeko 12:30etan musika gogoko zutenek Juan XXIII.a plazan Udal Bandaren kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuten eta badirudi talde honen doinuek pozik utzi zutela bertara hurbildutako publikoa.

Musikaz gain plaza hontan Herri Kirolaren erakusketak egon zen eta bertan harrijasotzaileek, aizkolariak e.a beraien trebezia argi eta garbi utzi zuten, baina hau arratsaldeko 18:00etan izan zen.

Egun honetan 20:00ak inguruan Arriaga plazan kontzentrazio bat egiten da eta hemendik kalejira bat burutzen da Bidebarrieta, Torre, Cinturera, Calzadas de Mallona eta Virgen de Begoña kaleetatik zehar. Honako hau ekintza garrantzitsuena dela esan dezakegu. Gainera, ondoren erromesei harrera egiten zaie Begoñan eta azkenik estarriak berotu eta denek «Begoñako Andra Mari» abesten dute.

Kantua amaitu ondoren aurten Piroteknia Astondoaren eskutik jaurtiriko su artifizialek gaua edertu zuten.

Azkenik eta egitarauarekin bukatzeko Lotxo musika taldeak jendea dantzan jarri zuen eta honekin hurrengo urterarte Begoñako Erromeriari agur esan zitzaion. Egun ederra izan zen eta antolatzaileak pozik agertu ziren. Erromeria hau orain dela hiru urte ospatzen hasi ziren eta badirudi urtetik urtera hurbiltzen den jendearen kopurua geroz eta haundiagoa dela. Beraz ikusi beharko da nolako harrera duen hurrengo urtean erromeria honek.



Lehenago aipatu bezala jende ugari zegoen, inguruko tabernak ere gainezka zeuden

**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**

SAAK

ANGEL


HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

DARDARA

TABERNA

S.M. Ascension plazan
Santutxu



Gaztetan Santutxun eta orain Larraurín bizi dan neska gazte honek izugarritzko aldaketak jasan dauz bere bizitzan; batez ere lan munduari dagokion aldean. Irrati eta telebista kate xumeetan hasi, eta kategori garrantzitsuagokoetan amaitu: Tele-5 eta ETBn, adibidez. Gaur egun Andoni Aizpurrekin dabil lanean «Bertatik Bertara» programan, oso gustura gainera. Kazetaritza munduaz eta bere joan-etorriei buruz hitzegin dugu Leire Zorrozuarekin.

berton: Kazetari Betidanik izan nahi izan duzu?

Leire: Ez da txikitatik pentsatuta neukan gauza bat, baina beno. Ikastolan egon nintzanean eta papertxo bat betetzeko eguna heldu zanean aukeratariko bat moduan ikusi neban. Lehenengoa jarri, Leioara joan eta kazetari egin nintzan.

berton: Orain pozik zabilz zure lanean?

Leire: Bai, orain bai. Ikusita zer den mundu hau bai. Beno egun batzuk beste batzuk baino hobeak dira, baina hala ere gustukoa dut.

berton: Non eman zenuen mundu honetara sartzeko lehen pausua?

Leire: Bizkaia Irratian bekadun sartu nintzan, 4. mailan unibertsitatean egon nintzanean, eta oso ondo. Han hasi nintzan informatiboetan, gero beste leku batzutan be ibili naiz.

berton: Telebistan hasi..., telebistan amaitu...

Leire: Leku bakoitzean lan bat egin izan dot.

Egon nintzan Bizkaia Irratian, gero telebista lokal batean, baita Canal Bizkaian ere, hor hasi nintzan telebista zer den ikusten. Euskadi Irratian

eta Tele 5 izan zan iaz, eta hortik ETBra.

berton: Nolabaiteko aldaketarik ezagutuko zenuke leku batetik bestera, ez?

"Orain oso gustora nago nagoan lekuan eta egiten dodana egiten"

Leire: Bai gauza desberdinak egiten nebazan... Informatiboak dira... justu albiste euki eta arinetan joan behar duzu erredakziora, albisteak montatu eta egin. Gaur egunean nagoen programan, Bertatik Bertaran, behintzat badut albiste ondo prestatu, gero kalera joan, elkarrizketak edo danadelakoa egin eta gero montatzeko denbora gehiago. Desberdina da, hobeto ez txarrago, desberdina.

berton: Bizitza pertsonalari dagokion aldaketarik bai?


Leire: Ez, ez,... Betiko lagunak daukadaz, betiko familia,... betiko guztia. Ez dago desberdintasunik. Igual, kaletik zoazenean eta norbaitek ezagutzen bazaitu desberdina da, jendeak zelako sentsa-

"Egun batzuk beste batzuk baino hobeak dira, hala ere gustukoa dut"

zioa daukan telebistan agertzen diren pertsonekin. Adibidez, Nafarroa Oinez nire ahizteak esaten eustan: "Leire, horrek ezagutu zaitu..."

berton: Ezagutu duzu inoiz diskriminaziorik zure lanean?

Leire: Diskriminazio diskriminazioa ez dakit. Gogoratzen dot behin esan nebala nesken eta mutilen artean bai egoten dala halako «desberdintasun» txiki bat. Gertatu daiteke neska bateri prentsaurreko batera joatea, edo dana delakoa, eta era onean esatea «bueno, txiki», «bueno, maja»; eta mutil bateri seguru nago gutxitan esango jakola «bueno majo», «bueno txiki». Ez dakit igual itxuragatik edo izango den, baino orain arte ez dut izan arazorik emakumea izateagatik. Eta espero dot ez izatea...



berton: Zer nabarmenduko zenuke zure lanbideetik?

Leire: Egun bakoitzean gauza desberdin bat egiten dodala, hori oso gustuko dodala; gainera, jende desberdina ezagutu eta beragaz egoteko aukera izaten dot. Mugimendu asko dauan lana da eta niri asko gustatzen jata. Ta kalean ibiltzen nazela, eta hori ere oso ona dela.

Baserritik
etxerainoko
OKELA ZERBITZUA
Eskaerak egiteko:
- Telefona eta Faxa: 94 433 48 02
- Orduetia: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
E.H.N.E.

MENDIA
BILBO 82
Santutxuko poteo gunea

GOIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
Telefona:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908- 45 16 22



berton: Baino ez dozu uste unibertsitateak jendearen etorkizun ikuspegia hotzitzen dauanik?
Leire: Beno, baina hori nik uste dot ikasketa guztietan gertatzen dala. Ikasten zagozan gauza bat dala, apunteak ikasi behar,... Ta gero, beste gauza bat da egiten dozun lana; azkenean, praktikak ez du zerikusirik unibertsitateagaz.

10 GALDERA LABUR:

- Abesti bat?** Itoizen *Ezezielen Prophezia*
- Idazle bat?** Ez daukat preferentziarik
- Liburu bat?** La leyenda de Hândel Hattel
- Pelikula bat?** *La vida es bella*, batez ere tituloagatik
- EHko herri bat?** EHko kostaldea
- Izen bat?** Kattalin
- Gona ala prakak?** Orain arte ez nebazan gonak jazten, orain hasi naiz... Segun ze momentu.
- Ze gorroto dozu pertsona batengan?** Ezer ez
- Eta estimatu?** Lagun ona izatea
- Ze albiste ematea gustatuko litzazizuke?** Gertakari orriak ezabatuko dirala, albiste ezezkorrak bakarrik ekartzen dabez eta.

berton: Badeko zu etorkizunerako jomugarik?
Leire: Ez dakit... objektiborik ez dago. Egunean-egunekoa egin eta etorri behar dena etorriko da. Onerako izan daitela guztia, orain oso gustura nago agoan lekuan eta egiten dodana egiten.

berton: Zer esango zenioke kazetaritza munduan hasi nahi duen gazte bati?
Leire: Lan polita dela, beno niri gustatzen jata behintzat. Baina ez dela ofizina baten eukiten den lana, edo ez dala bederatziatan sartu eta bostetan irteten den horretariko lana. Egunean-egunean urte ten jatzun hori bete behar da. Beno, hori guztia kazetari modura ze lan egiten duzun arabera; baina orokorrean nik egin dodazan lanak holakoak izan dira: tokatzen jatzuna tokatzen da, ta listo. Ta batez ere... pazientzia eukiteko, gogo asko eta animo! Hori bada gustatzen jakena...



PUNTAKO KIROL MARKAK

SANTUTXU SPORT

KARMELO, 9
Tfona: 94 412 37 01 **SANTUTXU**




Santutxuko poteo gunean

DAYTON
 Reagge-festa taberna
 Santutxuko poteo gunean

I N K E S T A

Zer iruditzen zaizu errenta aitortpena egitean diru kopuru handi bat gastu militarretan erabiltzea? Objezio fiskalaren alde zaude?



MARTA ROMÁN
Santutxu

Nik uste dut ondo dagoela. Guk ordaintzen ditugu zergak, beraz guk erabaki beharko genuke diru hori non gastatu. Ekintza sozialak oso garrantzitsuak dira eta gainera diru asko behar da.

LEIRE DIAZ
Txurdinaga

Nik ez dut inoiz errenta aitortpena egin baina ez litzaidake gustatuko diru hori gastu militarrei aurre egiteko bideratzea.

VICTOR M. HERVAS
San Adrian

Nik errenta egiten dut, eta gainera ezagutzen dut objezio fiskala zer den duela bost urte. Dena den oraindik ez dut egin. Baina informazio gehiago edukiko banu eta arazorik ez balego egingo nuke.

ODEI AGIRRE
Txurdinaga

Objezio fiskalarekin ados nago. Errenta aitortpena egitekotan nire dirua ez dut gastu militarrei bideratzerik nahi.

VIROGINIA OCA
Santutxu

Uste dut zerga horiek nora doazen ez dakigula eta horretaz baliatzen dira. Ni bat nator objezio fiskalarekin eta militarren gastuak ordaintzeko erabiltzen den diru hori beste gauza batzuetarako erabiliko

GORKA HERRERA
Santutxu

Nik oraindik ez dut egiten errenta aitortpena baina tokatzen zaidanean gastu militarrei diru guztia ematea iruditzen zait logikoena. Ja, ja ja!

OIHANE GONZALEZ
Santutxu

Hori bakarrik falta zen! Aukerarik egokiena da objezio fiskala.

OIARTZA
Santutxu

Nire dirua gastu militarretan erabiltzearekin ez nago batere ados.

VIROGINIA OCA
Santutxu

AKKARKAK

BERTIN

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak



Arbolak, zelai hauek landatuko dituzte.

ETXEBARRIA PARKEAN ZUHAITZAK LANDATUKO DITUZTE

Bilboko Udalak, Etxebarria zelaiko forestazio ezari aurre egiteko, 170 zuhaitz landatuko ditu. Landa-keta, Udal lorazaintza zerbitzuak Abendurako prestatuta dauka; negua, landatzeko urtaro aproposa baita. Zuhaitzez beteko duten eremuak, 3 zatitan banatutako 20.000 metro karratu ditu: Mallonako futbol zelaiaren aldeak, bolatokia eta galtzaden ingurunea. Projektuak, 33 milioiko aurrekontua du eta era ezberdinetako zuhaitzak loratuko dira: astigarrak, Indietako gaztainondoak, otsalizarrak eta ezkiak.

OBRAK

SOLOKOETXEN PARKE BERRIA

Gaur egun Solokoetxeko anbulategia eta osasun mentalaz arduratzen den Juan de Ajuriaguerra zentrua banatzen dituen lurzorua, parkea bilakatuko da bost hileko epean. Auzokideak hamar urtez zona berdea eskatzen aritu dira eta azkenean emaitza onak lortu dituzte, 1.500 m².ko aisialdirako gunea lortu baitute. Aipatutako zonaldeak bi zati nagusi izango ditu; haurrentzakoak, non saskiak eta bankuak jarriko diren, eta bestalde biztanleen bizi kalitatea hobetuko duen lorategia.

TXAKUR BATEN ERASOA

Hil honen hasieran eta Otxarkoagako auzoan, lau urteko ume batek ehizarako txakur baten erasoia sofritu zuen. Umea *pointerra* laztantzera hurbildu eta berehala txakurra bere gainean ikusi zuen, nahiz eta helduta zegoen. Ondorioz belarria zauritu eta hamalau puntu eman behar izan zizkieten umeari. Erasoaren lekuko izan ziren gurasoak, belarria deformatuta geratuko ote zaiion beldur dira.

OTXARKOAGAKO KOMERTZIANTEAK BILDU EGIN DIRA

Momentuz, 70 denda inguruk osatzen du Otxarkoagako komertzianteen elkarte berria. Gehienak, elikadura dendak dira, baina beste gremiotako dendak ere biltzea espero dute. Orotara, 240 komertzio inguru daude Otxarkoagan eta batez ere enparantza nagusia eta Zizeruene kalean kontzentratzen dira. Azkenaldian, ingurunean dauden denda guztiak azaltzen diren gida komertziala osatzen ibili dira, komertzio txikiak bezeroa hobeto zaintzen duela behin eta berriro azpimarratuz.



OBRAK



ESPALOI BERRIZTAPENA TXURDINAGAN

Txurdinagako hainbat kaletan zehar elbarrituek eta haur kotxeek ibiltzeko zituzten arazoaren ondorioz espaloiak zabaldu egin dituzte. Arrazoia farolek eragiten zuten oztopoa eta espazio mugatua zen hain zuzen ere.

Dagoeneko bukatutzat eman duten obra hau, Txomin Garat eta Artalendio kaleetan burutu da, Julian Gayarrerraino helduz.

IKASLEENTZAKO LAGUNTZA KLASEAK ARTABEN

Txurdinagako Artabe ikastetxean eta Zabalako ikastetxean ikasleentzako laguntza klaseak eskainiko dira. «Neguko eskola» honen helburua, ikasleek, pedagogo eta irakasleen laguntzarekin euren testuak ikastea da. Honetaz gain, irakurketa eta ulermen teknikak ikasiko dituzte, matematikari arreta berezia eskainiko zaio eta elkarbizitza sozialeko jakinbideak jasoko dituzte.

Gugaz Aurrera elkarteak arratsaldeko seietaatik zortzietara bitartean, 10 ikasleko taldeei klaseak emango dizkie. Programa hau, azaroa eta abenduak hila-beteetan burutuko da.

TOPEKO BARAZKIZALE TABERNAREN INAUGURAZIOA IZAN DA URRIAREN 28AN

Iturriaga zeharkalean *Topeko* izeneko taberna urriaren 28an inauguratu zuten. Bertan musika joleak ibili ziren giroa berotzen tabernari harrera ezin hobea emonez. *Topeko* taberna ugazaba berriek hartu eta jai giro apartarekin ospatu zen inaugurazioa. *Topeko* tabernan barazkiz egindako janaria da dasta daitekeen menu berezia, eta hau edozein edarirekin konbinatzeko aukera polita zen dute.

SANTUTXUKO IHAUTERIETAKO KARTEL LEHIAKETA MARTXAN DA

Santutxuko Familia Elkarteak azaroaren 1etik abenduaren 13ra arteko epea zabaldu du ihauterietako kartelak aurkezteko. Kartelaren leloa *Santutxuko Ihauteriak* eta neurria DIN A3 bertikalean izanda kartelak aurkezteko aukera paregabea duzu. Kartelean Santutxuko Familia Elkarteak agertu behar da eta saria 25.000 pezetakoa izango da kartel irabazlearentzat. Kartelak Santutxuko Familia Elkartearen egoitzan (Iturriaga 55, 1.ezk.) utzi behar dira astelehenero gaueko 8 etatik 9 etara bitartean. Sari ematea ihauteriak hasi orduko izango da. Anima zaitetz eta zorte on!

URIBARRI INGURUKO AUZOKIDEEN KEXAK

Uribarri eta Zurbaranbarri inguruko auzokideek ezadostauna adierazi dute azkenaldian euren ingurunean gertatutako bi arazoren inguruan. Batetik, San Agustinen Tanatorio bat eraikitzeaz daude PGOUk agertzen zen legeak aldatu ondoren. PGOUk ez zuen onartzen era honetako ekipamenduak gune erresidentzial batean eraikitzea. Gainera, 50 metrora beste bat eraikiko dela jakinik. Auzokideek hainbat mobilizazio burutu dituzte bai auzoan eta udaletxearen aurrean. Honetaz gain, 1.000 sinadura baino gehiago batu ere egin dute, instalazio horren onarpen eza argi uzten dutelarik. Auzokideek, horren kontra daudela adierazteko hainbat arrazoi kaleratu dituzte: ez dute beraiengana jo lizentzia emateko orduan, PGOUk izandako aldaketek ekimen pribatuari mesede egiten diote, hain leku txiki eta hain populazio handia pairatzen duten ekipamendu gehiegikeria, inguruneko gune berde eskasa...

Auzokideek uste dute, Bilbok tanatorio municipal behar duela eta bere ubikazio egokiena ospitalaren ingurunea izango litzatekela. Lasako tanatorioaren inguruan emandako irtenbideagatik (Udalak Gas

enparantzara aldatu zuen ubikazioa eta gainera 240 milioiko indemnizazioa eman zuen) San Agustin bezalako kasuei atea ireki zitzaiela uste du eta kalte-tuak sentitu direnez, tratu berdina eskatzen dute. Auzo hauetako bigarren arazoa Tutulu kalean eraldatzen ari diren Telefonicaren eraikuntza dugu. Hemengo auzokideek, eraldaketa honek auzoan sortzen dituen kalteak salatu ditu mobilizazio eta ehundaka sinaduraren bidez. Edifizioaren modifikazioarekin, antena ugari eta handiak ipini dira biztanle askoko leku batean; kanpo eta barneko megafonia ezarri dute zarata ugari sortuz; obrek kontenedore eta hondar asko hedatu dituzte auzoan. Gainera, Telefonikako zerbitzu publiko eta pribatuko langileek autoen gehitzea ekarri dute, eta hauek auzokideei dagozkien tokia hartu dute.

Problematika hau guztia, udal area ezberdinetan salatu dute baina udalak momentuz ez die kasurik egin, Telefonicari lizentzia gabeko era guztietako obrak egitea baimendu dion bitartean. Gauzak honela, mobilizazioekin jarraituko dutela adierazi dute auzokideen elkartetik.

EKIN-en AURKEZPENA

Azaroaren hasieran, EKIN antolakundearen aurkezpen hitzaldia egin zen Begoñako Udaltegian. Bertan, antolakunde honek jarraituko duen ildoaz aldu zuten. Euskal Herri aske baten sortze-gauzatzeko praktikoan urratsak eman, indar sozialak eratzen lagundu eta indar eta borroka desberdinen bateratasuna bultzatzeko zereginari eutsi nahi dio, independentzia eta sozialismoaren proiektu politikoaren bideragarritasuna eta beharra defendatuz. EKINek, lau zutabetan oinarritzen du bere ezaugarritza: Independentista, eguneroko jokabideetan Euskal Herria independente izateko gaitasuna garatzeko konpromezua hartu du; Iraultzailea,

herri borrokak eta lanabes ezberdinak erabiliz, bizi den egoera antidemokratikoak inposatzen dituen egoerak erroto aldatu nahi ditu; Nazionala, Hego-Ipar/Nafar-EAE zatiketa antinaturalari perspektiba nazionala alderatuko diote; Euskalduna, euskaraz bizitzeko ezina inposatzen duten ezarpen oro borrokatzeko konpromezu zintzoa eta finkoa beregain hartuko du. Hau honela, EKINETik, Euskal Herritarrek behar dituzten geldoak ez izatearen aldeko apostua egin dute. Era berean, gizartea aktibatzea ezinbesteko ikusten dute.



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!



hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerrean, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia: Solairua:
 Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

E R R I K A R I A

E R R I K A R I A


INTSUMISIOA:

ANTIMILITARISMOAREN ERANTZUNA

Leire Altamira 

Gure inguruan gori-gori dagoen gaia, intsumisioa. Gizartearen parte batek, oraindik ere, intsumisoak talde terroristekin erlazonatutako gazte berekoi, nagi eta bihurritzat hartzen ditu. Ordea, gero eta nagusia-go bilakatzen ari den beste gizatalde batentzat, autoritarismo eta ejerzitoaren menpe ez dagoen gizarte aske baten defendatzaile dira.

Ba al dago gure munduan bake eta justizian oinarritutako herririk? Posible izango zaigu egunen batean egoera horietan bizitzea? Etorkizun hurbil batean errealitatea zein izango den ez dakigu, hala ere, Gramsci pentsalari italiarrak zioena jarraitzen badugu gizateria eta historiaren ideia esperantzarria izan beharko genuke. Honen arabera, mendeetan zehar gizaki gehienak jarraitu izan duen justizia eta askatasuna posible da nahiz eta bidean betidanik oztupoak egon diren goi-mailakoak



direnen aldetik.

Menperakuntzarako neurriak

Gizarteko kideen menperakuntza hau lortzeko erakunde boteretsuek aparatu, bide eta militarrek zituzten beraien eskura. Horrela, militar erakunde eta gizarte menperakuntza garaikideak direla ondoriozta daiteke.

Garai Modernoan, absolutismoa eta zentralizazioaren in-

dartzearekin, ejerzitoen garapena ematen da zeintzuek estatuko gastu orokorraren sortzaile handia bihurtu ziren. Europako Industrializazio prozesua eta Iraultza burges-liberalek ez zuten gizartetik militarismoaren ideia ezabatu, estatuen eraiketan eta nazioarteko harremanetan garrantzia handia zuelako. Ondoren, Frantses Iraultzari jarraituta, estatu demokratiko bat bere biztanleek babestu behar zuten ideia zabaldu zen, baina honen guztiarenazetik faktore garrantzitsua zegoen: sentimendu nazionala sortzea eta ondoren, berau indartu eta zabaltzea. Aldi berean, gizonak ("benetako hiritar" kontsideratuak) euren nagusi zein jauntxoak errespetatzeko, obedientzian finkaturiko oinarri batzuetan hezitzen ziren. Horrela, zerbitzu militarra ez zen egitura militarrek antolatzeke sortu, herria disziplina baten menpe jartzeko baizik. Jarrera hau izan zen europar

estatuek mundua kolonizatzekeotan hartutakoa, geroago bi mundu gerrak ekarriko dituen. Baina dena ez zen hortxe geratu, II. Mundu Gerra bukatzean Europatik kanpo gudak oraindik ugariak zirelako hauek Gerra Hotzaren *armen konpetentziari* bidea utziz.

Intsumisioaren hastapenak


Garaikide dugun gizartea (langileria, batik bat), ordea, argi kontrajartzen zaie ejerzito eta gudei; hala ere, sentimendu erroto honek ezin izan zituen europar superpotentzien arteko guden bidea oztopatu. Baina 70etako hamarkadan, giza mugimendu berriek bultzatuta, injustizia, guda eta militarismoarekin bukatzeko joera agertzen da: «desobedientzia zibila» mundu egoikiago batera eramango gaituela defendatzen zutenak. Hain zuzen ere, garai honetan ematen da intsumisio eta kontzientziazko objektzioaren puntu gorena Euskal Herrian eta baita espainiar estatuan ere.

Intsumisioa : desobedientzia zibilatik harago

Hiritar eta komunikabideek oraindik ere, objektore eta intsumisio terminoak nahasten dituzte, baina biak elkarren ezberdinak dira. Horrela, objektoreak zerbitzu militarera joatea ukatzen duen arren honen orde zerbitzu zibila eskeini beharrean aurkitzen da. Intsumisioa, ordea, zerbitzu militarren eta honen ordezerko zerbitzu zibilaren ukatzea litzateke. Intsumisioa goi-kargudunek eta boteredunek ezarritako sistemekiko errebelatzeko era da,

kontziente eta biolentziarik gabekoa dugu, euskaldunon kasuan Espainiako gobernuaren lege eta neurrien kontra dagoena.

Atzerri hurbil honetan, orain dela hogeitabost urte ingurutik hona, mugimendu antimilitarista izan da desobedientziaren mota ezberdinen erabiltzaile eta bultzatzaile; gastu militarrei objektio fiskala, derrigorrezko zerbitzu militarri eta honen ordezerko zerbitzuari intsumisioa.



guden eta ejerzitoen desagerpena bilatzen duena. Azken finean, intsumisioa «desobedientzia zibil»etik harago doa, hau da, gizarte sailkatua eta Estatua ukatzen ditu, biek ezaugarri zapaltzaile eta autoritarioa baitaukate. Beraz, intsumisioak militarizatutako gizartearekin bukatu nahi du, gizarte zibil askea lortzeko. Aipatu «desobedientzia zibila» beraz, ekintza ilegal, publiko,

Baina 1997an planifikazio, eztabaida eta momentu egoki baten hautaketa egin ondoren, MOCek «kuarteleko intsumisioa» jarri zuen praktikan, bai ejerzito bai defentsarako egitura militar osoaren desagerpenarako tresna berria; ingurune ilunean agertzen den lore desobediente, hain zuzen ere. Aznarren gobernuak datorren milurtearen hasierarako (2003rako) soldaduzkaren desagerpena eta

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Tfnoa. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

BASTERTXU

TABERNA
Ricardo Bastida plaza


ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

**Zure
publizitatea hemen**

944 735 448

ejerzito profesionalaren sorrera agindu du. Erabaki hau justifikatzeko, mundu mailako orden berri horretan ejerzito txiki eta profesionalek izango duten papera aipatu bada ere, ukazina da heritarren artean soldaduzkak eta ejerzitoak orokorrean duten desprestigio handiak pisu handia izan duela Derrigortasunaren desagertzearen. Aldi berean, ejerzitoaren profesionaltasun prozesua ejerzitoaren aurpegi «humanitarioa» erakutsiaz batera bultzatu nahi dute.

Eta' orain zer?

Baina PPren gobernuak eginiko adierazpen honek gauzak bere lekuan jartzen al ditu? Ez al dakar honek egitura militar osoaren erremediorik gabeko profesionalizazioa? Ez al dakar sistema militarren sendarpena? Industria militarra mantentzeak ez al ditu guda eta heriotza

INTSUMISIOA SANTUTXUN

1999.eko urriaren 31ean 6. Intsumisio Eguna ospatu zen Abadiñon. Aurtengo edizioarekin intsumisioaren kanpaina 1989.an jarri zela martxan gogorazi nahi izan digute, baina 10.urteurrenaren ospaketa honetan argi utzi nahi izan da gaur egun antimilitarismoa soldaduzkaren aurkako borroka baino urrunago doan borroka batean murgilduta dagoela.

Hasiera batean intsumisioaren kanpainak Derrigorrezko Soldaduzka eta honen Ordezko Prestazioarekin amaitu nahi zuten, militarismoaren kontra jotzea, hain zuzen ere. Orduetik hona 18.000 gazte baino gehiagok eman du desobediencia-rako pausua, intsumisioa euskal gizarte-ko hainbat arloren borroka bilakatu. Bide honetan EUDIMA ere ssortu zen, Udal Intsumisioaren Mankomunitatea.

Gure auzoan honen inguruan ere badago zeresanik. Orain dela 10 urte «Santutxuko Intsumisioaren Asanblada» izenekoa sortu zen, hasieran bere kabuz baziharduen ere, geroago KAKITZAT koordinatzaile antimilitaristarekin batu zena. Urte horietan zehar gizartearen kon-tzientzia suspertuz zihonan desmilitarizazioaren alde eta argi antzematen zen jendearen inplikazioa gero eta sakonagoa zela, horrela apurka-apurka intsumisio

gehiago agertzeaz bat «Santutxuko Intsumisioaren Asanblada» Boluetarantz hedatuz joan zen. BOSTAN izena hartuz: «Bolueta eta Santutxuko Talde Antimilitarista» (KAKITZATen barnean jarraitzen bazuen ere).

Talde antimilitarista honek hainbat ekintza bideratzen ditu urtero euren ideiak hedatu, indartu zein ezagutarazteko eta horien adibide ditugu akanpadak, Santutxuko jaietarako eta ihauterietarako ekintza ezberdinak, Gabonetan guda eta armekin erlazionatutako jostailuen kontrako kanpainak... Hasiera batean, orohar ekintza gehienek helburua borroka antimilitarista izan zen; hau da, espetxe, atxiloketa, epaiketa eta orokorrean errepresioaren kontra agertzen ziren.

Oraingoan, eta kontuan izanik Espainiako gobernuaren erabakia, BOSTAN berriro ere bere abiapuntu eta oinarria itzuliko da; helbururik garrantzitsuenara, hain zuzen ere, gero eta nagusiago bilakatzen ari den gastu militarren ezabaketara eta gastu sozialerako beronen bideraketara. Honetarako estrategiarik garrantzitsuenen artean Objekzio fiskala aurkitzen dugu, gizarte desmilitarizatu bat lortzeko eman daitekeen urrats erabakiorra norberaren diruarekin «ustezko gastu militarretan» ez kolaboratuz.

gehiago behar? Ez al da hau gobernuak hainbeste «nahi» duen bakearen kontrako eraso?

Dena dela, talde antimilitaristek ez dituzte euren neuronak geldirik utziko errealitate berri honen aurrean. Talde antimilitaristentzat militarismoak hortxe jarraitzen du eta desmilitarismoaren aldeko lana beharrezkoa izaten jarraitzen du. Behar horren froga argia dugu aurtengo Kosovoko guda, Milosevicen gobernuaren indarrek burututako genozidioa zein NATOren eskuartzearekin. Gerra honetan aurrekoetan baino gehiago biktima nagusiak herritarrak izan dira bai «akatsen» ondorioz, bai beldurra sartzeko estrategia modura, kalte ekologikoak sortuz... Horrela, suntsiketan parte hartu ondoren berreraikuntzaren negozioan hartuko dute parte orain, antimilitarismoak ekintza hauei guztiei bere erantzuna eman behar die-larik. Beraz ejerzitoarekiko kolaborazioa onartzen ez duten gazteak ez al dira gudarik gabeko mundu baten benetako bultzatzaileak? Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.



Olgetan haur jaiari 1996ko azaroan eman zitzaion hasiera Bilboko Kafe Antzokian. Berau euskaldunon (zahar, heldu, gazte zein umeen) topagune izanik, azken hauek ere beraien esparrua izatea ezinbestekotzat jo zen. Kontuan izanik Bilbo oso hiri erdalduna dela, umeak beren asteburuko jai, jolas, eta abarren bitartez euskaraz harreman sareak zabaltzen eta ereiten joateko, komunikatzeko sortu zen *Olgetan*, hau da, bizitzarako hizkuntza dela ikusi eta sentitu ahal izateko esparrua. Eta ez, askotan edo gehienetan suertatzen den bezala, eskola-ikastolako arloak lantzeko balio duen hizkuntza huts.

Honetaz hitz egiteko Eneida Iñurrietarekin, haur jaiaren partaidearekin bildu ginen eta honelakoxe kontuak esan zizkigun: *Hasieratik «Olgetan» 3-10 urte bitarteko Bilbo zein inguruko umei zuzenduta egon da, beraien jai propioa izan dezaten, euskaratik abiatutakoa. Honetarako ezinbestez eredu entretengarriak, gozagarriak, hezigarriak eta bizigarriak eskaini eta bideratzen dira. Honez gainera, garrantzitsua deritzogu, nagusiok egiten dugun bezala, umei ere jai hauen bidez geure Euskal artistak ezagutarazi eta beraiekin gozatzen ikasteko bideak jartzeari».*

Haur-jaiak igandetan arratsaldeko 5etan hasi ohi da, eta urtean urtean parte hartzen duten umeen kopurua handiagoa da. Hau dela eta «laguntxo» kopurua momentuz mugatu beha-

OLGETAN

KAFE ANTZOKIKO HAUR-JAIA

Umeak adi-adi ikuskizunari begira

HURRENGO EMANALDIAK

- Azaroak 14**
Enkarni Genuaren txotxongiloak
"Erreka Mari"
- Azaroak 21**
Txamuskina Antzerki Taldea
"Kaioa eta katua"
- Azaroak 28**
Ipuin kontaldia: HIRUKI Taldea
"Atxis!"
- Abenduak 12**
Ekialdetik datorren magoa:
TXAN HANDIA.
- Abenduak 19**
Txamuskina Antzerki Taldea
"Behin batean"
- Abenduak 24**
OLENTZERO jaia goizean.

rrean aurkitu dira, Eneidak azaldu zigun bezala, nahiz eta asmoak aurrerantzean eremu berriak zabaltzeko izan. Aurtengo ikasturterako programazioak dakarren berritasuna auto-produkzioa bultzatzea da. Igandetako jaia batez ere ikuzkizun aktiboa izan bada, hemendik aurrera monitorean jai parte-hartzaileagoa gehiago antolatuko dira, umei beraien dohaiak sozializatzen lagundu ahal izateko (kanta, musika, dantza...), arestian aipaturiko beren arteko harreman eremuak ereiten joateko, etab. Jai hauetan parte hartzeko umeek Zenbat Garako Laguntxo Txartela eskuratzen dute (beren izena daraman txarteltxoa) eta honekin ikasturte osoko, hau da, azaroaren 14tik maiatzaren 21era arteko programan parte har dezakete. Lerro hauek irakurtzen dituzuegureko ikasturte honetan antolatutako lehenengo ekitaldia amaitua izango duzue, hala ere hurrengo berri hementxe duzue:

Begoñazpi Ikastolatik ikusi ez genuena



Aurreko zenbakian Begoñazpi ikastolak egiten diharduen handitzeari buruz zenbait argibide eman genizkizuen baina, irratian iratxoak legez, gure ordenadorean prakagorriek bihurrikeria bat egin ziguten eta artikuluarri zegokion argazkia ostendu. Idoro egin dugu eta hementxe daukazue. Bertin ikus dezakezue egiteko duten kirolegia aurreko aldean, gaur egungo ikastola eta atzean trinitarien eraikinak eta inguruko lurak, dagoeneko Begoñazpi ikastolarenak direnak.

Bikoitz


ARROPA ★
ZILARRA ☾
OPARIAK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO

Otoio

Mendi

Sta. Klara



A

Biktimganako Laguntza Zerbitzua

V

Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarekiko
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos
y Cooperación con la Justicia

EUSKARA TXEPETXA BALITZ BEZALA HEGAN

Txurdinaga eskolatik berri bi heldu zaizkigu gure hizkuntzaren gainean, alde batetik ospatu berri duten euskararen astea eta bestetik euren irratia, Txepetx iratiaren albiste pozgarriak. Lehenengoari helduta, azaroaren 10, 11 eta 12an eskolak euskararen astea burutu zuen ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko. Horretarako bertso batzuk egin zituzten Pello Josepe doinuarekin kantatzeko, eranskailua sortu zuten eta eskola

izana da. Bertara etorri zen 4. mailako ikasle batzuek hala eskatuta eta hantxe aritu ziren pozarren galderak egiten, kontu kontari. Azkenean Antonek ipuin labur bat kontatu zien irratsaioari amaiera emateko.

Guk, jakina, ez genuen galdu Anton Irustarekin izateko abagunea eta zertan dabilen azaldu zigun. Goizetan Urretxindorra ikastolan literatura irakasten dabil eta arratsaldeetan hamaika saltsatan, irakurri eta idazteaz gain (azken ipuin liburua *Han hemengo ipuinak* atera berri du eta Labairuren eskutik *Ipuinen tailerra* irakaskuntzan ipuingintza lantzeko tailerra). Kafe Antzokirako saioak prestatzen dabil, baita Canal Bizkaia telebistan azaroaren 15tik aurrera egunero astelehenetik ostiralera bere ipuin eta kontuekin gozatzeko parada izango dugu. Beraz ez da makala Antonen kemena, are gehiago kontutan hartuta ume txiki bat duela. Ez da, ez, geldirik egoten diren horietakoa Anton Irusta, ipuin kontalaria.



apaindu zuten euskararen aldeko mezuez. Umeak pozik eta harro ikusten ziren Txurdinagako kaleetatik "euskararekin jolasean ekin" zioen eranskailua paparrean zeramatela.

Beste aldetik irratia orain dela bi urte hasitako bideari jarraitu dio ikasturte honetan ere hasierako gogo eta kemenez. Lan handia egiten ari dira arlo batzutan. Mikrofono gehiago erosi, telefono lineak jarri eta irakasleentzako hitzaldiak antolatu dituzte helburu zehatz batekin: umeen hezkuntza eta euskara maila hobetu irratigintzaren bidez. Aldi honen adierazgarri, lehengo egunean Anton Irusta, ipuin kontalaria gonbidatu

Euskararen asterako prestatutako bertsoak.
(Pello Josepe doinuarekin kantatzekoak).

TXEPETXA BALITZ BEZALA HEGAN
IBILI DADIN EUSKARA LEIHO TA ATE ZABALIK UTZI
DIZKIOGUN BADA EZPADA
IKASGELATIK PATIORA TA HANDIK PARKE ZEIN PLAZARA
EUSKARARENTZAT KABI BIHURTU
GENEZAKE TXURDINAGA

HORRA SANTUTXU TA OTXARKOAGA
HORRA BERRIZ BOLUETA HAN BEGOÑA TA ALDE ZAHARRA
HOR BE(HE)AN JENDE BETETA ...
EUSKARA EGINGO AL DUGU LASTER
HAU DA HEMENGO HIZKETA
BILBO OSOAN AUZORIK AUZO
IBILI DADIN LASTERKA

Beraz ez da makala Antonen lana egoten diren horietako Anton



Anton Irusta Txurdinagako umeekin



Unai Cuevas

Xakea, existitzen den kirol eta joko zaharrenetakoa da. Egipziarren garaikoa ei da, gero Arabiarrek penintsulan sartu zuten arren.

Santutxuko xake taldea ez da garai haietakoa baina badu bere historia. Orain dela urte nahikotxo, lagun talde bat Mahatserriko taberna batean biltzen zen xakea deitzen den kirol-joko hau praktikatzera. Denbora pasa ahala, lehiaketetan parte hartzearen ideia izan zuten, eta honetarako federatu beharra zegoenez Zuri-Baltza taldea sortu zuten. Izena, erraz uler daitekeen moduan taularen koloreetatik atera zuten. Hau guztia, eta beti akten arabera, 60. hamarkada inguruan gertatu zen. Ordutik eta hona, Euskal Herriko xakearen inguruko talde indartsua osatu dute.

Historian zehar, egoitzaren leku aldaketa pairatu izan dute: Boluetatik Santutxura (Antonio Eguiluz 3) pasatu ziren.

Gaur egun, kluba 9 eta 65 urte bitarteko 35 bazkide inguruk osatzen dute. Gehienak, eskola urtekoak edota beterranoak dira.

Zuri-baltzak, txapelketa ugari irabazi ditu eta gaur egun, Euskal Herriko taldeen artean punta-puntan dabilta. Iaz, probintzia arteko dagoen xake mailarik gorenean garaile atera ziren. Honekin, Mallorcan ospatuko den estatu mailako txapelketarako txartela lortu dute.

Nahiz eta bazkide jokalariek beherakada izan, dituzten talde apurrek maila oso altukoak dira.

Klubak, xake federazioarekin kolaboratzen du. Federazioak, txapelketak antolatzen ditu eta Zuri-baltzak lokala uzten du. Honez gain, aurtan eta bigarren urtez jarraian, Bilboko Aste Nagusiko xake txapelketa antolatu dute. Txapelketa hau oso garrantzitsua da eta maila goreneko jokalariek parte hartzen dute. Gainera, txapelketa honekin taldeak diru sarrerak izaten ditu.

Maila dibulgatiboko ekintzak ere antolatzen dituzte ikastetxeetan batez ere; aurtan Basarraten ere bai.

Zuri-baltzekoek diotenez beste kirolek, eta futbolak batez ere, gazte asko kentzen dizkiete. Kasu honetan errealista agertzen dira eta jende gaztea erakartzeko xakeak dituen arazoak aitortzen dituzte; futbola, futbito edota saskibaloien aurka oso zaila baita borrokatzea.

Xakeak duen etorkizunari buruz hitzegiterakoan, iraunkortasuna hitza aitortzen dute Zuri-baltzekoek. Jende askok xakean joko-

tzen dakiela esaten du, taberna askotan xake-taula egoten da eta honegatik bere iraunkortasuna azpimarratzen dute. Bestetik, inteligentetzako kirola denaren ideia horren abantailaz ere jokatzen du.

Mallorcan ospatuko den estatu mailako txapelketarako txartela lortu dute

Guk, Bertoneko orrialde honetatik iraunkortasun hori mantentzeko eta ahal den heinean areagotzeko, jendeari "jakea" luzatzen diogu. *Jake matea* izatea ekiditeko, pasa daitezela Zuri-baltzeko lokaletik (ostiral arratsaldean) eta ondo pasa dezatela peoi, dorre edota zaldien kirolarekin.



Bilboko Aste Nagusian maila handiko jokariak lehiatzen dira


AZKONABITZA (1726 m.) eta EGOARBITZA (1.751 m.) Elgetatik

Elorriotik joan ginen Elgetara, herri honetara heltzerakoan, Elgetako kalean sartu baino lehen, Eibarrerantz doan errepi-dea hartu genuen, handik gutxira Karabieta mendatera heldu ginen eta han utzi genuen kotxea.(A) Eskuin aldean Nafarroa batailoia-ren oroimenez eraikitako oroitar-ria dago eta haren parean, ezke-rraldean, Arantzetazubiko auto-bus geltokia. Hemendik mendia aukeratu daiteke: Azkonabitza, Egoarbitza edo biak, guk egin genuen legez.

AZKONABITZA.- Aipatu du-gun oroitarriaren ondoan bide bi irteten dira, bata Karabieta tabe-rnara doa, haren ondoan hasten den bestea hartuko genuen guk, eta hemendik igotzen, ordu laur-denera-edo, bidea banatzen den leku batera heldu ginen, ez genuen ez bata ez bestea hartu, bien artean dagoen bidexkatik (8) gorantz jo, eta aldapa gogor-gogorra igota, laster ginen Azko-nabitza tontorrean (726 m.). Guztira 25 minutuan egin genuen. Mendi puntan erpin geodesikoa eta txartel-ontzi bi daude.

EGOARBITZA.- Azkonabitzatik jaitsita, Karabietan kokatuko ginen berriro. Han, geltokiaren ondoan Egoetxeaga auzora joateko errepi-dea irte-ten da, hemendik abiatuz eta errepi-dea beherantz hasten denean bidegurutzeta dago (B), hemen eskumako pista hartu genuen eta laster beste bide-gurutze batean agertu ginen, guk artez jarraitu genuen minutu gutxitan zuri-gorritz margoztutako etxola edo aterpe bat ikusi arte. Haren ezker-alde-tik pinu artean gorantz doan pistatik jarraituz, berehala heldu ginen beste aterpe batera, hau zuriz


margoztuta, tontorpean geunden, zuzen igotzea posible ikusten baldin bazen ere, mendia ingura-tuz joan ginen eskuinaldetik dagoen bidezkatik, tontorrera heldu arte Egoarbitza (751 m.) Erpin geodesikoa eta txartel kutxa daude goian. 30 minutuan-edo egin daiteke. Domeka trankil baterako paseo polita beraz. Aukera ederra gainera inguruko herriak ere ezagu-tzeko. Elgetatik hasita, Elorrio, Bergara, Eibar...



"ATZERRIAN ARTEAZ BIZI ZAITEZKE"

FITXA

IZENA:	IÑIGO
ABIZENA:	CABO
JAIOTEGUNA:	1970-4-4
JAIOTERRIA:	BILBO
ARTISTAK:	INOR EZ BEREZIKI. BERE MUGIMENDUAN ARITZEN DIREN LAGUNAK.
ERAKUSKETAK:	BILBON, REKALDEKO ARETOAN, "GURE ARTEA" N,...BERLINEKO ARTE GALERIAN ETA AZKENA, "ERROMAKO ARTE GAZTEA" N EUSKAL HERRIKO ARTEA ORDEZ-KATZEN IZAN BAITZEN.



Santutxutar honek hemendik at lortu du arrakasta, Berlinen zehazki. Arte Ederrak ikasi ondoren bertara mugitu eta azken korronteetan murgildu egin da "instaladore" hau.

**ZURE
PUBLIZITATEA
HEMEN
94 473 54 48**

ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

A N G O R A I D E A

E A R K



Joana Etxebarria ✍

BERTON: Zein da zure lana konkretuki?

Beno, arte munduaren barnean mugimendu asko daude eta instalazio izenez ezaguna den horretara dedikatzen naiz.

BERTON: Azalduko zeniguke zertan datzan arte mota hau?

Azken korronteen barnean dago eta argazkia bideoarekin eta objektuarekin egiten den nahasketa litzateke, hori bai espazio batekiko funtzioan beti.

BERTON: Nola hasi zinen mundu honetan?

Txikitatik gustuko nuen mundu hau, gero Arte Ederrak burutu eta laugarren urtean atzerrira joateko aukera suertatu zitzaidan Berlinera, beka batekin. Bertan artista batekin lanean hasi eta bost urte eman nituen.

BERTON: Noraino heltzea gustatuko litzaizuke?


Ja, Ja,...egia esan artetik bizitzea gustatuko litzaidake, gaur egun gogoko duzun lanean aritzea nahiko zaila da. Artista moduan mantentzea nire helburu bakarra da orain behintzat, bizitzeko nahiko lortzea,...

BERTON: Gogorra al da artisten lana?

Gogorra denik ezin dezaket esan, niretzat meatzari baten lana gogorragoa delako. Ekonomikoki txarto dugula argi legoke, ez da gauza berria.

BERTON: Non duzue artistek irtenbide gehiago hemen ala atzerrian?

Profesional mailan atzerrian, noski. Hemen gero eta garrantzi gehiago hartzen doa mundu hau baina oraindik kanpora joatea komeni da zerbait egin nahi baduzu.



BERTON: Proiekturen bat al duzu momentuan?

"Bilbao 2000" urteurrenean erakustaldia jarriko dut "Bilbao Arte" ospakizunen barne. Udaberrian Berlingo arte galerian lanak aurkeztuko ditut bestalde.

BERTON: Egia al da Guggenheim-en erakusketak izango duzula?

Ez. Hori aspaldi izan nuen proposamena izan zen. Egia da beharbada nire lan batzuk bertan azalduko direla baina ez da "nire erakusketa" izango.

BERTON: Mila esker Iñigo zure lana zein den azaltzarren eta sorte on ea egunen baten zure izena artista handiekin batera ikusten dugun.

Eskerrik asko zuei. Ez nekien aldizkari batean agertzeko garrantzirik nuenik, behintzat orain fama gehiago hartuko dut!

Irudiak:

Iñigo Cabo
"Procesos y Proyectos"
1998ko Urtarrilaren 27tik
Martxoaren 1era
Errekalde Aretoan
izan zen erakusketa

horoskopoa



Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Egunak udazkenean gero ta ilunago eta zu gero ta tristeago? Aizu motel anima zaitetz, bestela neguari aurre egiteko ez duzu indarrrik izango ba!



Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Ez duzu oso aurpegi onik, beraz, hobe duzu esne beroa edan eta lotara joatea.



Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Koloredun kuleroekin ez duzula ezer ere ligatzen ala? Noski, ez dituzu oraindik armairutik atera eta.



Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Beti paper tartean egoteak ez dizu mesede onik egiten, anima zaitetz eta ahaztu behingoz papertxoak.



Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Jadanik gabonetarako mirariak eskatzen Olentzaroari? Badaezpada, jar itzazu lehenbailehen hankak lurreen motel.



Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Kafea, tabakoa, alkohola...uzteko apostuari ezin eutsiz zabilzala, saia zaitetz ba 2000. urtetik aurrera!



Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Ule urdinak tintatzen erosoago zaudela, aurrera ba orduan zure look-arekin.



Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Urtebetetzerako opari onegiak izan dituzula? Zer uste zenuen ba, ondokoak urtean behin akordatuko ez zire la ala?



Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Bidai bat egiteko asmotan zabilzala? Konta iezaiguzu ba, hurrengo milurteko non hasteko asmoa duzun.



Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Musika tresnaren bat jotzen ikasi nahi duzula? Bazen garaia burutik sano zaudela erakusteko. Animo!



Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Kirol munduan murgildu nahian? Has zaitetz ba, igongailua burutik kentzen.



Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Elektrizistarena ematen, ea burmuineko zirkuituak ondo konektatzen dituzun ba, animo!

agenda

BILBOROCK aretoan:

- Azaroak 22: "Gato Negro, Gato Blanco" filme Serbiarra 20,30tan. 500 pzta.
- * Azaroak 23: Juanito Oyarzabal-en hitzaldia. 20,00tan. Sarrera dohainik.
- * Azaroak 24: Asteazkenetan Musika (Emakume Saila). Big Mama taldea. 20,30tan.
- * Azaroak 26: Narco taldearen kontzertua. 21,30etan.
- * Azaroak 27: Antzerkia Bonbolinak taldearekin, "Ventre de Arena" lanarekin. 20,00etan.
- * Azaroak 28: Nagusientzako kontu kontariak *A luz de las Velas* taldeak aurkeztutako "Salpicón de cuentos" lanarekin. 20,00etan.
- * Azaroak 29: "Delicatessen" filme Frantziarra 20,30etan. 500 pzta.

ERAKUSKETA GELAK :

- * Begoñako Udaltzegan (Circo Amateur Club Deportivo, 2): Azaroaren 22tik aurrera: Patricia Azpiazu. Teknika mixtoa.
- * Alde Zaharreko udaltzegan (Pelota, 10): Azaroaren 19tik 30era bitartean "Bizkaia Maitea". Argazkiak, margoak eta ipuinak.
- * Bidebarrieta Kulturgunean: Azaroaren 22tik aurrera "Bilbon idazten".
- * Bilbao Arte-n (Urazurrutia, 32): Azaroaren 10tik aurrera Ignacio Goitiaren margoak.
- * BBK-ren kultura gelan (Elcano, 20): Azaroaren 24tik aurrera "Argazkiak eta elezaharrak". ACNUR.
- * BBK-ren erakusketa gelan (Gran Via, 32-beheko solairua): Paul Gauguin-en marrazkiak.
- * BBV-ren erakusketa gelan (San Nicolas plaza, 4): Azaroaren 22tik aurrera Ikusentzunezko erakusketaren XII. Edizioa.

KAFE ANTZOKIAN :

- * Azaroak 24: Euskadi Gaztea irratia kontzertua. 20,30etan.
- * Azaroak 25: Kontzertua: Ruper Ordorika. 22,00etan.
- * Azaroak 28: Olgetan haur jaia: "Atxis". 17,00etan.

BESTERIK :

- * Abenduak 4,5,6,7 eta 8an : Durangoko Liburu eta Diska Azoka.
- * Abenduak 21 : Santo Tomas azoka.

Eraso sexualak gure enpresetan? Pentsatu ere ez!
Guk geuk hartzen dugu ardura guretzat lan egiten duten emakumeen sexua akosatuta dagoen ala ez begiratzeko

